

ELEZARRAK

Gaur gure ele edo literatura zarra izango dogu gai idaz-lan onetan. Zaarra diñogunean, lenengo liburua argitaratu baiño lenagokoa esan gura dogu

...

Aita Santi Onaindia-ren "Milla olerki eder" liburua daukagu aurrean, baiña, irakurle, askorentzat dana labur-labur agertzea izango da onuragarria. Liburuan 35n. orrialdetik 169n.era dago dana, eta izkia naikoa txikia da.

Aberastasun ikaragarri bat dago or, 139 olerki eder eta euren artean antzerkiak diran "Pastoralak".

...

Baiña irakurle! Ba-dakizu zer jazo zan aita Onaindia-k "Milla olerki eder" liburu ederra argitaratu ebanean?

Ara! 1954n. urtean argitaratu eban liburu ori aita Santi Onaindia-k, eta asieran agertzen dauz bear ebazan baimenak: Ordenakoa, Erki-Buruarena, Gotzaindegikoa eta Donosti-ko Gotzain-Ordezkarri Nagusia zan Sudupe-tar Jose-rena. Guda-ostean argitaratzen zan lenengo liburua zala uste dot.

Eta baitu egin eben liburua, argitalpen osoa! Liburu bakoitxak milla ta berreun orrialde daukaz. Izkia naikoa txikia. Ez zan ba merkea izango! Etorri ziran poliziak Larrea-ko Lekaidetxera eta liburu guztiak eroan ebezan.

Baitze orrek ondoren bi ekarri ebazan: Bata, Polizietxea garbitzen joaten zan andereak ale batzuk etxe orretan ostu egin ebazala eta Aita Santi-ri emon. Ondo esana da "lapurrari ostuten dautsonak eun urteko parkamena merezi dau". Eta bestea: Ezelako uste bagerik, Santi Onaindia-k urriñeko laterri batzutatik zorion-gutunak artu ebazala ain liburu ederra argitaratu daualako. Zelan ori? Orduko diktadurak liburuak erbestera bialdu ebazan, emen euskereari laguntzen jakola eta euskal-liburuak argitaratzen dirala baieztatzeko.

Ori da aurpegia, ori!

...

Liburu eder orretatik, oraingoz, elezarrak, olerki zarrak artzen doguz. Ona emen guztiak lauki baten:

Elezaarrak

- | | |
|---|-------------|
| 1.- Epika edo gertakuntzak..... | 18 olerki |
| 2.- Lirika edo maite-leloak..... | 54 olerki |
| 3.- Irri ta negar kantak edo satirikoak. | 27 olerki |
| 4.- Ardo-kantak edo anakreontikoak..... | 10 olerki |
| 5.- Jainkotiak..... | 25 olerki |
| 6.- Pastoralak (Antzerkiak) | 4 olerki |
| Guztiz: | 139 olerki. |

Gero esango dabe euskaldunak motelak garala idazten! Au dana idazten asi-aurretik.

...

Eta lan au amaitzeko, pastoralai buruz zerbait.

Erdi-Aroan antzerkia erriko plazan egiten zan eta mota askotako antzerkiak izan zeitekezan: Eriotzeagaz dantzea, eskarnio-dantzak, esku eskoiak ezkerari, probintzialaren dantzak eta abar.

Baiña antzerki iraukorrak bitarikoak geratu ziran: Eleizkoiak eta errikoiak. Elizkoien artetik sortuak dira geroago datozen Misterioak eta Auto Sakramentalak.

Pastoralak eleizkoien artean sartzen dira, eleizakoak ez diran beste gai batzuk be agertu-arren eta ba-dauke antza Misterio de Eltxe ta olakoakaz.

Iparraldean Pastoral asko dagoz, argitaratu begeak be bai, eta Erdi-Aroko antzerkiari buruz Europa-n dagoan altxorrik aundiena dira gure pastoralak.

XVI gizaldia baiño lenagokoak dira baiña ez dakigu noiz asi ziran. Gaur be antzezten dira, telebistatik be ikusten doguz,

Antzerkia asieran plazan egiten zan, etxeetatik ikusten zala. Orrelan antzezten ziran Grezia-n Eskilo, Sofokles, Euripides, Aristofanes eta olakoen antzerki ospetsuak. Koruak zeregin aundia eukiten eban, abesti asko sartzen eben eta iñoz ez dira agertzen gizonak emakumeakaz nasteen.

Pastoralak "gorriak" eta "urdiñak" dagoz. Poesiarloan ez dira gauza aundirik baiña ba-dauke gatzeta ozpiña. Erdel-itx asko artzen dabez.

G. Hérelle jaunak liburu ederrik asko atera ebazan Pastoralak dirala-ta eta berak gaiak onelan banatzen ebazan:

- 1) Atxiña aroa (2)
- 2) Itun Zaar-aroa (8)
- 3) Itun Barri aroa (9)
- 4) Santuen bizitzak (18)
- 5) Guda abestiak (5)
- 6) Elebarriak (11)
- 7) Ipuñak (13)
- 8) Aratostekoak (2)
- 9) Zintzarrotsak (16)

Guztiak dira zuberoraz idatziak.

OLAZAR-tar Martin-ek